
ERRIKO EUSKALKIEI BULTZADATXO BAT

Begira eta irakurri "EGIN" egunkariak urte onetako zezeilaren 18'an Arrasate (Mondragon) erriko albisteen artean dakarren barria.

Egunkari onen barriak itzez-itz emen ipiniko dodaz, ortografia apur bat egokituz, eta bakoitzak zer aterako dauan pentsatu daiala.

"Arrasaten agozko artu-emon geienak geure bialarako berbetan egiten dira".

"Arrasateko euskalkia lantzea edo agozko euskeraren obetzea dau elburutzat, Arrasate'ko Udal Euskaltegiak antolatu dauan azken-ikastaroak".

"Arduradunak gai onetan eginiko ainbat azterketaren arabera, gure inguruetako euskerak arreta berezia bear dau, batez ere eguneroko bizi modu arruntean agozko izkerak sortzen dituan zalantzak ekiditzeko (kentzeko)".

"Arduradunen esanetan, euskaldun zar alfabetatuak eta euskaldun barriak, funtzio lokalean bein-

tzat, Arrasate'ko euskalkia erabiltzeko gogoazal-tzen dabe".

"Eta euskaldun barriak, natiboekin itz egiteko eta agozko artu-emonak sendotzeko, emengo euskalkiaren ezaugarriak ezagutu gura dabez".

"Beraz, euskalkien erabilpen zuzena ikastea, eta euskalkiaren aberastea, izango litzateke elburu".

No Comment

Iñaki Goikoetxea



Eusko Jaurlaritzaren Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreátegi, 14, 2', eskoia. 48001 BILBAO

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ
